



Kristina FERNANDEZ

The End

Ekaitz GOIENETXEA

The End” denek ikusi dute. Berak, hori baino ez: film bukaera. Gainontzekoak hasieratik daude pantailaren aurrean, eta bera beti iristen da berandu. Beste guztiak oso-osorik ikusten dute pelikula, eta bera ez da ezertaz jabetzen. Koadrilaren lokalean hautsontziak mutxikinez beteta daude narrazioko gure protagonistak lanetik irten osteko lehen kanutoa biltzen duenerako.

Eta horrek amorratu egiten du.

Narrazioko gure protagonistak beti erreproduzitzen du galdera bera. (Rec) «Zertaz zihuan pelikula?». (Rewind) Eta hurrengoan berdin. Lokalekoek ere, galdetzen duen baikoitzean, berdina erantzuten diote (playback). «Hobe zuk zeuk ikustea hasieratik, lagun». Normala. Hainbeste kanuto erre ostean, edo ez dira ezertaz jabetu, edo etxera joateko gogoia dute erotismodun eszenak oroimenetik ezabatu baino lehen, *fast forward*-i eragitera (harrapatu al du norbaitek?).

Narrazioko gure protagonista jakingura uzten dute, ikusminez.

Amaierak oso gutxi argitzen diote filmen nondik norakoaz narrazioko gure protagonistari (gauza bat, narrazioko-gure-protagonista oso luzea da idazteko, beste izen bat ipiniko diogu: Peio). Bueno, ba, Peiori azken guztiak berdintsuak iruditzen zaizkio. «The End» denak igualak. Aktore desberdinak antzeko eszenak antzestzen.

Irakurleak jakin behar du Peioren lokalekoak BirHaize Flins bideoklubera joaten di-

rela, hurbilen dagoena delako, eta komedia errromantikoaren atalean begiratzeko dutela, beti, zein film alokatuko duten, eta, beti, Zitik hasita, beherantz (nik zer dakit, bakoitzak bere maniak ditu). Hau da, kultuzko film arrarorik ez, mesedez, zertarako?

Baina, Peiok ez daki non-zer-nola alokatzen duten. Peiok ez daki ia ezer. Filmak igualtsu finitzen direla baino ez.

Gauzak horrela, bukaera ez da interesgarriena (narrazio honena ere ez; abisatuta). Peio nazkatzen hasita dago. Peiok beste zerbait nahi du. Gehiago. Hasieratik. Osorik!!! Oraingo, ezin du ezer egin. Lanetik koadrilakoak baino ordu bi beranduago irteten da, eta, lokalera heltzen denean, zintaren hirulaurdenak pasatu dira jada. Gutxienez. Ez bada dagoeneko zinta osoa bukatu. Hori ere pasatu zaio Peiori.

Aldi baterako lan enpresa batekin du kontratua, egunean hamar orduz lan egiteko, diru apur baten truke. Autoari salda botatzeko gastatzen du gehiena. Kanuto eta zerbazarako beste zati handi bat, eta asteburuko kimikarako justu-justu heltzen zaio. Eta gainera ez dio astirik uzten lagunekin kanuto batzuk lasai erretzeko; pelikulak osorik ikusteko.

Joder-tio-puta-mierda-no?

Ilunpetan sartzen da lokalera. Zaratarik txikiena moteldu guran ibiltzen da. Ematen dio ostiko *zeozeri* edo zapaltzen du *batetaker* identifikatu gabea. «Sssh!». Barkatu. Izkinaren baten esertzea lortzen du; batzuetan, ez beti. «Aupa...». Kexa lehor batek agintzen dio isiltzeko berehala, *joder, ya*, ez duzu ikusten filmaren momentu interesga-

riena galduko dugula?

Peio gaixoa. Gure Peio. Oi, Peio, Peioooo... Ezin hitzik esan, ezin enteratu ezertaz, ezin konpartitu tarte bat lagunekin, ezin bizi baztertua sentitu gabe, ezin esan laster bukatzen zaiola zabor kontratu madarikatua, eta hobe horrela, ez baitauka esplotatzaile horiei ipurdia miazkatzen jarraitzeko batere asmorik. *Ni de palo*.

«Ikusi zenuen atzoko filma?». Gainera, lanera joan eta hori izan behar entzuten duen lehenengo gauza lankidearen ahotik. Peiok: «...» –ezet esan nahi du horrek, baina isiltasunarekin-. Eta lankidea hasten zaio Peiori pelikula *laostia* izan zela kontatzen eta barrez lehertzekoa zela. «...» –ez zait interesatzen, alegia-. Bestea ez da enteratzen baina. Pazientzia. Lasai, azken eguna da. Egia! Azken eguna da!! «Aizu, zer izen du filmak?». Peiok langabearen lehen eguna horretarako erabiliko du, filma ikusteko. «*Dos tontos muy tontos*». Oharra hartuta.

Iritsi da eguna. Lokalean bera bakarrik. Sofa osoa beretzat. Hautsontziak hutsik (zabor poltsak gero aterako ditu; gero). Mahai gainera atera ditu: BirHaize Flins bazkide txartel distiratsua; gusanitoak, bi pakete; doneteak, eta lagunik ez egun osoan; birra; metxeroa; papera; tabakoa; belar poltsa. Zinta atera du karkaxatik. Sartu bideo aparatuan. Plop! kanporatzen du trasteak zinta atzera, botaka, oka eginez bezala. Bigarrenan sartu da. Klausk. *Play*. Karrank. Bzzz ...

Kredituak. Abisua. Ez pirateatzeko. Zela-koak irentsi behar. Enfin. Baina, Peiok erabakita dauka, oso-osorik ikusiko du zinta! Bere amaren loriagatik!!! Eta hiru euro ordaindu

ditu, aizu... Oh, oh! Hastera doala! Txatxan-txatxan... Itxaron!

(Pause) ...

Peio, une honetan, mundu zabaleko izakirik boteretsuena sentitzen da.

Komunera berehala. Hustu du. Bueltan da. Salto sofara (*play*).

Ez! (Pause).

Kanutoa egingo du lehenago... Tira, bada ki pantailara begira eta eskuei so egin gabe kanuto bat biltzen. (*Play*) Hor goaz...

Lilurik handiena erakusten dute haren begiek. Harri eta zur geratu da, paralizatuta, zirrara betean. Eskuetan oraindik kanutoa biltzen hasteko duela ere ahaztu zaio. Ordu laurdenera-edo konturatu, bildu eta piztu. Plazera. Unibertsoko patxada zabalena...

Ordu betera-edo bigarren kanutoa bildu. Piztu. Barre algara betean dago orain Peio. «Ostia, zein ona dagoen Bartoloren belarra!». Filma ez, ezin kaskarragoa da. Baina, e! Harro dago Peio. Hasieratik ikusi du, eta badaki zertaz doan. Aspergarria dela? Eta, zer! Filmaren laburpena edonori kontatzeko kapaz da Peio. Halako batean ez tul egin du Peiok. Ez tul-tul-tul-tul!!! Ez da posible. Ezin liteke. Bai, ez dago zalantzarik. Aurretik ere ikusita dauka. Badaki nola bukatuko den. «The End» denak bezala. Haizea hartzera, hiru euro.

(Stop)

(Eject)

Ekaitz Goienetxea Biarritzen jaio zen, 1982an. Egun, Bermeon bizi da. Kazetaritza lizentziaduna, soinu teknikari ikasketak egiten dabil eta Idazle Eskolan 2. mailako ikaslea da.